

5. Iberiako toponimia – Iberiar toponimia

Javier Goitia



5.1. Nor / Perfil

a) Ikasketak / Studies / Estudios

- Ingeniaritzan Lizentziatua.
- Geografian Lizentziatua.
- Kuaternarioan Masterduna.

c) Eskarmentua / Experience / Experiencia

- Ingeniari moduan egin du lan, ingurumen arloan bereziki, eta Iberiar penintsula alderik alde bidaiatuz eta ondo ezagutuz
- Bere aitak, Juan Goitiak, euskeraren jatorriari buruzko liburu bat idatzi zuen: *España ¿Ibera o vasca?*, Jabierrek lan horretan lagundu zion, garai horretan lana mekanografiatuz eta bananduz. Zaletasun hori jarraituz baina berezko bidea eginez, Jabier, Iberiar penintsulako toponimoak sakon aztertu ditu azken lau hamarkadatan.
- Azterketa toponimikoak egiteko, besteak beste, Espainiako Institutu Geografikoak duen datutegi erraldoi batean (1.300.000tik gora toponimo) egiten ditu bilaketak eta, GIS programa baten laguntzaz (bilaketa geografikorako aplikazioa), antzekotasunak dituzten terminoen multzoak automatikoki egiten ditu.

d) Argitalpenak / Publications / Publicaciones

- *ADN del Euskera en 1.500 partículas*. Liburu honetan euskeraren 1.500 morfema inguru topatu ditu, berezko esanahia duten soinurik txikiak. Horiei esker, dagoeneko galdua dauden adjektibo, adberbio eta izenak topatu ahal izan ditu.

d) Harremanetarako / Contac / Contacto

basanesese61[abildua]hotmail[puntu]com

5.2. Laburpena / Abstrac / Resumen

a) Laburpena

Hitzaldi honetan gero eta nabarmenagoak diren hainbat kontu labur-labur eman dira. Bata, toponimian ez direla aldaketa fonologiko asko gertatzen. Hau da, leku izenak oso gutxi aldatzen direla.

Bigarrena España eta Portugaleko toponimo asko, kanpotik begiratuta zentzurik ez dutela eta leku askotan errepikatzen diren leku izenak haien izena ulertzen zuten gizakumeek jarri zituztela. Hizkuntza hori Euskeraren antzekoa zen eta hizkuntza horren sustraiak berreskuratzeke aurrerapen asko egin dira. Eta, horri esker, izen asko deszifratzen ari dira.

b) Abstrac

This paper is a summary of a few increasingly evident facts.

One is that place names are very reluctant to phonological changes; that is, the names of places change very little along the time.

Another is that a lot of the place names in Spain and Portugal, names repeated here and there, are apparently absurd under today's language, but they were established several thousand years ago by inhabitants or by nomadics which understood its meaning. The language in which they were baptized was very similar to Basque and that along last years, has been done many advances in the recovery of roots of this language, so that some names are being deciphered.

c) Resumen

Esta comunicación es un resumen de unos cuantos hechos cada vez más evidentes; uno, que la toponimia es muy reacia a los cambios fonológicos; que los nombres de lugares cambian muy poco.

Otro, que una gran cantidad de los topónimos de España y Portugal, nombres aparentemente absurdos que se repiten aquí y allá, fueron establecidos por unos habitantes que comprendían su significado, que el idioma en que se bautizaron era parecido al Euskera y que se han hecho muchos avances en la recuperación de raíces de esta lengua, con lo que algunos nombres están siendo descifrados.

5.3. Txostena / Communication / Ponencia

a) Iberiera ikertzeko iturri baliagarriak eta ez baliagarriak

Hitzaldi honetan gero eta nabarmenagoak diren hainbat kontu labur-labur eman dira. Bata, toponimian ez direla aldaketa fonologiko asko gertatzen. Hau da, lekuizenak oso gutxi aldatzen direla.

Bigarrena España (*ñ* fonema, euskeratik datorrenez, erabili behar dela uste dut) eta Portugaleko toponimo asko, kanpotik begiratuta zentzurik ez dutela eta leku askotan errepikatzen diren lekuizenak haien esanahia ulertzen zuten gizakumeek jarri zituztela. Hizkuntza hori Euskeraren antzekoa zela eta hizkuntza horren sustraiak berreskuratzeko aurrerapen asko egin direla. Eta, horri esker, izen asko deszifratzen ari direla.

Aurrerapen horiek erakusten dutenez, tradizionalki Iberierazko izentzat hartu diren izenak ez direla, eta Iberiar epigrafiaren transkripzioa egiteko erabiltzen ari den metodoa ez dela egokia.

Era batera nahi nuke gai garrantzitsu bat transmititua: Euskera bezalako hizkuntzen ikerketa arkeologikoa egiterakoan beharrezko da hainbat diziplina kontuan hartzea, baita gogo eta lan egiteko modu ireki eta dinamikoarekin aritzea ere, gure gaurko kulturak ukatu egiten dutena. Izan ere, egungo kulturaren oinarri nagusiak azal azalekoak dira eta azken bi mila urte eta erdiko balore, ohitura eta tekniketari gainean eraiki dira. Eta horrek ikerlarien lana erabat mugatzen du. Adibidez, ikerketako gune gehienetan ez dago ikerlari bat onartzen duenik duela 125.000 urte gizakia nabigatu zezakeenik, eta horrela, Afrikatik Europara zeharkatzeko denontzako bide bakarra lehorretik egin zela, Ekialde Hurbiletik.

Badira lau mende baino gehiago Baltasar de Etxabek iradoki zuela Gaztelaren jatorria, "Kantabroa" (hau da, Iberoa) zela. Eta posible da bera baino lehenago, beste batzuek proposamen bera egin izana.

Gai hau landu duten jakintsu edo ikerle moderno guztien artean, argiena, Wilhelm Humboldt izan da, eta duela berrehun urte honakoak esan zituen: "lekuizenak azterketak egiteko material garrantzitsuenak dira". Baita honako hau ere: toponimiako izenek "beren esanahi propioa dute" eta idazle klasikoek (Plinio, Pomponio Mela, Estrabon ...) utzi dizkiguten iberiar hirietako¹ izenen transkripzioak ez direla batere ikerketarako baliagarriak, egindako hamaikatxo zoritzarrezko aldaketengatik, jatorrizko izen horiek duela 2.500 urteko inbaditzaile erromatarrentzat "desatseginak eta ahoskatzeko zailak" zirelako, izan ere, haien hizkuntza fonetikoki txiroagoa zen.

Akats honek ondorio izugarriak ekarri ditu, Iberiako sustraiak aztertzeke erregistro dokumental horiek orain arte erabili den oinarri bakarra bihurtu direlako.

Adibidez, historialari erromatarrek utzitako leku eta pertsona izenetatik itsumustuan hartutako multzo bat aztertu ondoren, hauen moduko batzuk ditugu: Aemiliana, Albarum, Antonianu, Aracillum, Arotrebes, Arriaca, Barnacis, Caesaraugusta Calagurris, Castulo, Cervaria, Ilipula, Garumna, Lacippo, Laconimurgi, Laecuris, Lastigi, Libisosa, Lucentum, Maiorito, Mentesa, Mirobriga, Obulcula, Octaviolca, Oretum, Orniacus, Pleutaures, Salaria, Sisapon, edo Salica, Toletum, Trifinium, Turgalium edo Urbiaca.

Eta izen horiek España 1.300.000 izenekin alderatu ondoren, antza duten bakanetakoak hiruzpalau baino ez dira: "Arriaca" "Mentesa" eta "Urbiaca" eta amaiera hauek dutenak bat ere ez: "ianu" "curis", "lium" edo "acus".

Hau drama txiki bat da, gure jakintsu handienek mendeetan zehar material okerraren gainean lan egin dutela erakusten digulako. Horrela ez da harrizkoa arlo honetan aurrerapenik egin ez izana.

Bestalde, Iberiar epigrafia argitzeko, hau da, baliozko transkripzioak nola egin behar diren jakiteko egin den lan nagusia pertsona bakar batek garatutakoa izan da: Gomez Moreno. Zoritzarrez, berak egindako lanak ez du fruitu askorik eman, mende bat pasatu ondoren, egin diren itzulpen asko zalantzakoak dira eta hitz konplexuetatik bitan baino ez dirudi zentzuzkoak direnik: "belagasikaur" eta "binikebin" biak Alkoi-ko berunean aurkitutakoak. Gainera, baliteke bi hitz horiek ere kapritxoaren emaitza izatea.

b) Behin-behineko ondorioak

Esandakoagatik behin-behineko ondorio batzuk atera ditzakegu:

Ikertzeko materiala ez da aldatuta egon behar. Erronka handiko ikerketa bat ezin da jaioko ordutik ustela den material batean oinarritu; ezta ere frogatu gabeko transkripzioetan. Kronika Klasikoetatik, Erregistro Zibiletatik edo komentuen kontabilitatetik aterako leku, pertsona edo santuen izenek ez dute erronka honetarako balio.

Negargarria da asmo kritikoz irakurtzea España eta mundu mailako filologo ospetsuenetariko batek, Ramón Menéndez Pidal, España hizkuntza zaharrarekin lotutako gaien gainean berba egiten. Etsigarria, bere filosofia aurreiritziz beterik dagoelako eta hori Zientzia ez delako.

Adibide batzuk aipatzearen, España hizkuntzen ikerle honek, hamahiru "bide etimologiko" eta "jatorrizko arbola bat" proposatu zuen jatorrizko "Mageterito" izenetik, hamar edo hamabi pausuetan 1300. urtean idatzi zen "Madrit" izenera heltzeko. Norberaren burua botateko moduan.

Ramon berak Gaztelako toponimian sarri agertzen den "gallego" izena errekonkistaren garaian Galiziarrez populaztutako herriak direla diosku edo baita Gaztelan dagozen hiruzpalau "Bizkainoak" ere. Teoria ahul hau berehala erortzen da, Euskeraren ikuspuntutik penintsulan eta Galizian bertan dagozen 1.200 "Gallego" eta antzeko izenak aztertzen ditugunean (ikus eranskina).

Lekuizenek aldaketa gutxi izan dute. Egia da izenak aldatzen direla, eta egia da lege fonologikoak eta fonetikoak dagozela, batzuk egonkorak, baina aldaketak ez dira lege. Izen asko ez dira aldatu edota oso gutxi aldatu dira³. Hau zehazteko, ehunka, milaka antzeko izenekin "jolastu" behar dugu; ezin dugu eboluzioaren teoria bat ezartzea lau "datu" epigrafikotan oinarrituta.

Lekuizen batzuek gaur egungo hitzekin duten antzekotasunak ez du esan nahi jatorri bera dutenik. Toponimian badagoz gure egungo hizkuntzetako (Erderaz, Frantzesez, Italiano...), berak diruditen leku, pertsona eta santu izen batzuk, adibidez "Ballesta", "Braga",

"Casilla", "Gallina", "Gallego", "Ibero", "Iglesia", "Jardin", "La Mancha", "Lámpara", "La Rinconada", "Miguel", "Obispo", "Oreja", "Oso", "Palacios", "Paul", "Piojo", "Reloj", "Santa Maria", "Val..." , jatorrizko hizkuntzan esanahi desberdina zutenak, baina, esanahi zehatz, uniboko eta koherentea zutenak.

Estatuan historikoki jarraitu den "ikerketa" ildoak ulertu ahal izateko, San Isidoro eta godoen musulmanen aurreko Españara itzuli behar gara. Españak sasoi haretan, ez Hispania, Erromaren ordena galdu berria zuen eta dagoeneko, bi gizarte klasetan zatituta zegoen: Nobleak, Hiralgia eta Eliza batetik eta jende arrunta bestetik.

Orduko "eliteek" etorkizuneko zientzia printzipio arbitrario, klasista eta obsesiboetan eraiki zuten. Oinarria hau da: gizakien aurrerapen guztiak mundu helenistikotik edota erromatar inperiotik zetozen. Ideia honek ia bi mila urteetako ikasleen ikuspegia mugatzeaz gain, ondorengo gizaldi guztietako ikerleek lana baldintzatu du eta, ondorioz, greziar eta erromatar inperio aurretik ez da egon mundu zibilizaturik, giza antolaketarik, edo abstrakzio zein adimen aurreratuko mundurik.

Europako sistema kulturala, apezpiku erdigodo Isidoro tesiarekin eta espainiar hizkuntzalariaren ideiarekin ados zegoen. Beraz, XIX. mendean, Grezia eta Indiako zenbait hizkuntzen artean antzekotasunak aurkitu zirenean, teoria berri bat dogma haien neurrira garatu zen eta indoeuropar (hasieran, Indogermaniar) kontzeptua asmatu zen.

Hau dena atondu zen ekialdetik mendebaldera asmatutako giza eta kultura korronte batez, hau guztia, inongo oinarri zientifiko barik eta berriro ikertzeko izugarriko aukerak dituen Euskera bezalako hizkuntza baztertua utziz.

Sedentarismo aurreko gizarte ehiztari-biltzailearen bizimodua ezagutzea ezinbestekoa da. Gizarte sedentarioak ("Geltokiak" keltokiak-zeltak?), hau da, nekazaritzatik bizi zen "gizarte finkatuak", hiri aberatsak eta jakinduriaren kontzentrazioa sortu dituen eta batzuen esanetan 9.000 urte baino ez dauzkanak, oraingo teknika eta zientzia maila egotea lortu du.

Baina askoz lehenago, seguruenik orain dela 400.000 urte, *sapiens* antzeko gizarte bat zabaldu zen, munduko bazterretan zehar bidaiatzen, moralaren eta zientziaren oinarriak ezartzen, lekuak lurralde bihurtzen eta horiei izenak ematen.

Euskera, gizateriaren prozesu luze hau ulertzeko behar dugun ikuspegiak tresna oso baliagarria da. Hastapen horien "korapiloak" askatzeko kontuan hartu behar dugu eta ez, soilik, azken 2.500 urteetako datuetan oinarritutako gaur egun eredu murriztua.

Gaur egun aintzat hartzen ditugun aztarna arkeologiko bakarrak harriak, hezurak eta metalen edo arrasto fisiko edo kimikoren bat izaten dira. Baina batzutan, mirari moduan, desagertuta egon beharko liritekeen eta orain dela 400.000 urtekoak omen diren Soningeneko moduko lantzak agertzen dira. Horiek dioskutenez, sasoi luze baten, ugari izango ziren osagai galkorrez egindako tresnak, armak... (egur, ola, narru, zain, landare zuntzak...). Horiek, egiteko eta baliagarriak izateko, teknika sofistikuak erabili beharko ziren.

Toponimia eta onomastika orokorretik partikularrera aztertu behar da, beste zientziekin batera uztartuta. Lekuizenak beste "aztarna geologiko" bat gehiago dira, kasu honetan,

hizkuntzen aztarnak. Zenbait lurraldetan ugariak, kilometro karratuko hamar izen arte egon daitezkeelako.

España bezalako herrialde batean, nire azterketetan, 1.300.000 gailur, mendi, mendate, lautada, lats, aldapa, zingira, iturri eta bestelako leku moten izenak erabiltzen ditut, eta horietan txertatua, noiz edo noiz hiriren bat. Sarritan, lekuizen horiek zenbait herri edo hiri izenekin bat datoz.

Izugarrizko lekuizenen kopuru honek, onomastikak, heraldikak, abizenek, ahalik eta euskal hitz gehienekin –euskalkiak barne- ezinbesteko oinarria osatzen dute.

Oinarri hori metodo egoki batekin eta honako hizkuntzekin kontrastatuta erabiltzen da: hizkuntza erromanikoak, germanikoak, Zelta, Sanskritoera, Tokarioera, Hititera, Arabiera, Hebraiera eta Thamazigh. Eta beti, esan bezala, orokorretik partikularrera egiten da azterketa.

Aurrezkoez gain, zientzia eta arteetan ezagutza handia eduki beharra dago, hala nola Astronomian, Geografian, Geologian eta Geoteknian, Mineralogian, baita ere Kristalografian, Animalien eta Landareen Biologian, Ozeanografian eta Hidrologian, Ekologian, Meteorologian, Fisikan, Kimika eta Matematikan, Arkeologian, Nekazaritza eta Basogintzan, metalen Teknologian eta beste teknologia batzuetan: ehunak, kontserbak, eraikuntza, garraioa, arrantza eta guda, aberegintza, ontzigintza eta itsasketa, Filologia eta Filosofia... Eta horrela, guzti horiekin, espezialiteek haiek bakarrik lortuko ez lituzketen emaitzak eskuratu ahal ditugu.

Metodo hau Deskartesen teknika analitikoaren alderatzizko bidea dela esan dezakegu. Lehen izan genuen ezagutza integratura itzultzea da, historiaurrean zehar benetako oinarri moral, sozial eta teknikoak ezarri zituen ezagutzara eta ondorengo gizarte “Geltoiak” (sedentarioak) garatzeko behar ziren oinarrietara.

Ezagutza partzial hauek ezinbestekoak dira lexema bakar batek eskaini dezakeen zentzua osatu ahal izateko. Adibidez, ikerle batek ez bada inoiz belontzi baten ibili, “babor” Nederlanderaren "bak" (popa) hitzetik eta "board" (borda) hitzetik datozela onartuko du. Nahiz eta hitzek ez duten antzekotasun handirik eta “babor” benetan izan zenarekin zerikusirik ez izan. Edozein marinelek irri bategaz ukatuko luke horrelakorik.

Kontua da erudizioa gehiegi espezializatu dela eta elkarren artean erabat isolatuta dagozen ghettoak sortu direla, erabat endogamoak, ikuspegi orokorrik edo unibertsitalik gabeak. Horrela, zerbait argitaratzea zerbait aurkitzea dela uste izatera heldu gara.

Orain arte aipatutako metodoa eta beraren oinarriak kontuan hartzen ez baditugu ezin izango dugu etimologian ezer aurreratu. Orain arte jarraitutako bidea, hau da, izenak modu isolatuan aztertzea, hizkuntzalaritzatik eta ez zientzia guztien ikuspuntuetatik, mitologia, epopeiak edo pertsonaia historikoei garrantzi izugarria emanez... egin beharrekoaren erabat kontrako norabidetik doa eta ez du zerikusirik gure arbasoek lekuizenak jartzeko zuten kontzeptualizazioarekin.

c) Proposamen etimologiak: Iberia eta España

Iberia izenaren balizko etimologia. Pagelen irritziz, Iberia moduko izenak, asko aldatu ez diren horietakoak izan daitezke. Izen hau lehengoz Herodotoren garaian (Ka V. mendean)

agertu zen; gerotxoago Eskiloren bertsoetan eta handik aurrera sarritan. Iberiaren aipamen asko ez dira beste liburuetatik hartuta, zuzenean jasota baizik. Horrek, bere esanahia topatzen saiatzera bultzatu gaitu⁴.

Goazen 3.000 edo 4.000 urteetako bidaitxo bat egitera... Orduan, "Iberia" greziar eta fenizientzat Españaren Mediterraneoako ertze estu bat besterik ez omen zen.

Ekialdeko marinel horiek kontsumo produktu batzuk ekarriko zituzten eta mineral eta bestelako lehengaiak eramango zituzten, galkorrak ez zirenak eta urteko edozein sasoiotan ontziratu zitzaketenak.

Horrela, orduko ekialdeko itsasgizonek ez zuten kostaldetako mendi lerroak igarotzeko asmo handirik izango, ontziak bete eta al bait arinen beraien herrietara itzultzea baizik. Gainera, kai bako kostalde horretan, belontziak, plaietako "graoetan" hondoa jota utzi beharko zituzten. Haienztat Iberia kostaldeko ertza besterik ez zen izango.

Baina hemengo Iberia ez da munduko bakarra. Kaukason, ekialdeko Itsaso Beltzan, izen bereko lurralde bat dago, K.a. III. mendetik gutxienez aipatua izan dena.

Saiatzen bagara hurbil dagozen herrietako toponimia aztertzen (material gutxi badugu ere) antzeko izenak egon badagoz Portugalen, Frantzia, Italian, Tunisian, Maltan eta Marokon. Adibidez, Akitanian "Lac Chiberia", Marokon "Siber" eta "Siberne" hainbat "Iberri", "Iber", "Khyber" (Shiber) ... eta Italian "Hiberia" eta hainbat "Tiber" ...

Españan, gauza errazagoa da, lehen aipatu dugun mikro toponimiako zerrenda handia dugulako: "Iberias" bat Serra do Farelo Lugo eta Coruña bitartean, "Iberas" Uharte-Arakilen ondoan, hiru "Ibero", "Iberos", "Iberondo" eta ia ehun famili horietako izenak "Siberia", "Siberio", "Ibi", "Ibiña", "Eivissa" (irla), "Ibixa" (Deba, Gipuzkoako baserria), "Ibizar", etab. etab... Ikusi amaierako taula.

Dentsitate eta homogeneousutasun horiek izen hau gutxi aldatu dela frogatzen digute. Beraz, Georgiako historialari eta hizkuntzalariak oker dabilzala pentsatu behar dugu, beraien "Iberia", amaigabeko mutazio fonologikoen bidez, "Sasper" izenarekin lotzen saiatzen direnean, Sasper beraien hizkuntzan georgiartarren jatorrizko izena izanik.

Matematikak, hau da, Europan dagoen Iberia guztien maiztasunak argi diosku ia aldaketarik ez dela egon eta gehienek seguruenik jatorri bera izan dutela, eta lekuizenak sortzen zituztenek asko mugitzen zirela, penintsula iberiarretik lautada europarrera eta Ural mendietatik haratago.

Iberia hitza osatzen duen morfemen alorrera itzuliz, Mediterraneoako lurraldeetan ugariak eta aldatu gabekoak dira nahiz eta milaka urteetan grafia ezberdinak erabili izan diren.

Euskerara jotzen badugu, ibaiaren ("ibai", "ibæi") izen kanonikoa esaldi konposatua dela eta hiru osagai dituela ikusi dezakegu: "i" ur; "bae" mugimendua edo korronea eta, azkenik, "i", ugaritasuna adierazten duen atzizkia. Hau da, "ibaia" "ur asko duen korronea" litzateke.

“Ibæi” hau, “ero” atzizki adjetiboagaz lotzen badugu, maiztasun, joera edo iraupena adierazten duena (ez Astarloak zioen moduan oldarkeriaren kalitatearen erroa) "IBAE -ero" izango genuke, hau da “etengabeko ur korrontea”.

Seguruenik orain dela sei edo zortzi mila urte, urak erregulatzeko presa, urtegi edo antzekorik ez zegoenean, Ebro definitzeko egon zitekeen izenik zehatzanetakoa zen. Batez ere Frantziatik ia Portugaleraino errekek baino ez ditugunean (urte osoan urik ez dutenak): Muga, Fluvià, Besos, Tordera, Foix, Llobregat, Sec, Palentzia, Turia, Xúquer, Serpis, Jalon, Riusec, Algar, Segura, Almanzora, Andarax, Adra, Guadalmedina, Guadalhorce, Guadaljaro, Hozgarganta (guzti hoiek erromatarren aurreko izenak, euskaldunak ez esateagaitik...), eta dozenaka erreka txikiago.



Palancia erreka uda garaian, Sagunto ondoan

Datuen arabera jatorrizko ahotsa "ibero" zen eta denbora joan ahala, piskana-piskanaka, bokal eta kontsonante berriak sartu ziren. Eranskinean dagoen taulan fosilizatuta geratu diren *Iberia* izenaren aldaketen lagin bat dago

Baliteke Iberia toponimiari buruz orain arte idatzi den gauza guztietatik hau izatea egiatik hurbilen dagoen bakarra: jatorrizko izena “Ibero” zela eta ondorengoa “Iberia”. Gaur egun ere, “o” dunak askoz ugariagoak dira “a” dunak baino.

España hitzararen balizko esanahia. Iberia landu ondoren, bigarren toponimo iberiar garrantzitsuena eta aspaldikoena erromatarrek deitutako "Hispania" dugu, nahiz eta, egia esan, seguruenik betidanik “España” izen euskaldun hutsa izan den, gaur egun euskal herritar askok, atzerrizat hartzen duguna.



España (horrela idatzita edo *Espainia* batzuek nahiago badute) izen arrunta da Iberiar penintsulako alde karetsuan. (ikusi II. taula eranskinean)

Bere esanahia: "Haitz izugarria" izan liteke bi osagai hauek aintzat hartzen baditugu: "espa", gauza izugarria, gehiegizkoa, eta, "ña", haitz moztua. Litekeena da haitz hau Gibraltarreko haitza izatea Afrikatik ikusita, bestaldeko kostaren erreferentzia.



Beste izen eta irudia berezia Espuñako haitza da Murtzian.

Espuña: "Haitz hunkigarri handia". Hiru osagai egon litezke: "espa", lehen bezala, gauza izugarria, "u" handia, eta "ña", haitz moztua.

Españako mendizerretan arrano eperzaleen arrastoa jarraituz (Bonelli arranoa edo Hieratus fasciatus) ibili garenok, ziur hartu dugula halako ezuste bat gure begien aurrean Espuña haitza agertzen zen bakoitzean, bere horma opoa grisa eta urrezkoa ia haitz bageko Murtzia herrialdean.

d) Iberiar toponimia aztertzeko Euskera nola baztertu den

Azken hiru mendeetan, ikerle bakan batzuek proposatu dute Euskera izan litekeela hizkuntza batzuen oinarria, besteak beste, Latinaren eta iberiar penintsulako toponimiaren abiapuntua, baina beti, koarentenan ipini edo barregarri utzi nahi izan dituzte. Antzina, gutxiesteko, nahikoa zuten batetik inperio erromatarraren "handitasuna" nabarmentzea, baserritar, artzain, errementari edo mariñel xumeen mintzairaren aurrean. XIX. mendean nazionalismoaren sukarraren pean zeudela esatearekin nahiko zuten eta, azken hamarkadetan, burutik kentzen edo katedra goxoak edo ahalegin gutxiko karguak eskainita "erosten" ibili dira.

Azken bertsio hau, gaur egungoa, kaltegarriena izan da, lizentziatu eta doktoredun gazteen azken belaunaldiak, geure hizkuntza, komunikaziorako eta euskal arimaren bihotza izateaz gain daukan gauzarik baliagarrienetik erabat kanpo utzi dituelako: historiaurreko mundua ulertzeko zientziari eskaini ahal dion gaitasuna haintzat ez hartzea.

Hasieran fraide eta kronista mistiko-humanista-erromazale-grekozaileen ikuspegi partziala izan zen baina gero, botere eta diruaren indarraz ideia berak jarraitu izan du: gizaki indartsua edo botereduna dela lekuei izena jartzen diena (erregeek, buruzagiek, santuek, pertsona zitalek...). Egia esan, boteredunek ez dute toponimian arrastorik utzi.

Beste batzuek lekuizen asko Euskerari zegozkiola aipatzen zuten. Esaterako, XVIII. eta XIX. mendeen bitartean, hemengo edo estatuko hainbat ikerlek (Larramendi, Mogel, Astarloa, Erro, Hervás ...) eta baten bat atzerritakoen tartean, Wilhelm Humboldt besteak beste, hasi ziren Euskera zabalago eta sakonago ikertzen (inoiz egin ez zena). Orduan, betiko indar erreakzionarioek kutsu politikoa zutela atxikia erabiliz, mugimendu hau desprestigiatu eta hondatu zuten, ia hasi baino lehen eta ikerketa hurak ekar zitzakeen emaitzak lortu baino lehen.

Lekuizenen etimologiak bilatzeko goian aipaturiko bide antropozentrikoa irrigarri geratzen da hizkuntza batzuetako milaka izen eskura ditugunean, izen horietako asko gaur egungo hiri batzuekin edo idazkunekin (Ascoli-koa esaterako) bat datozenean eta, fonemen norberaren neurrira egindako legeen ordez Aitzineuskera moduko tresna bat (nik "Eukele" deitutakoa) eskura dugunean.


Adibidez, penintsulan 13 "Zaragoza" baldin baditugu, zelan baieztatu daiteke lekuizen hau Cesar Augustatik datorrela? Edo hiru "Pamplona" baldin baditugu, zelan baieztatu daiteke beste aukerei inolako zirrikiturik utzi barik Pompaelo-tik datorrela?

Bere sasoiari William Humboltek esan zuen "euskal sustraietan sakondu behar da", erro horiek badirelako itzulpen orokor eta koherenteak lortzeko giltza.

Beti jakin izan da Euskeraren agregazio eta aglutinazioren ahalmena, neurri handi batean, esanahi bakarreko erro bakunetan oinarritzen zela baina horieko erro gutxiren esanahia ezagutzen zen.

Berriki argitaratutako *El ADN del Euskera en 1.500 partículas* liburuan (Euskeraren DNA 1.500 partikuletan) 1541 erro azalduta dagoz eta ziurra da asko gehiago dagozela oraindik lortzeko, erreskatatzeko. Esaten da Sanskritoak 1.700 sustrai dituela. Euskerak seguraski kopuru hau gainduko du, pertsona bakar batek ikerketa lana egin beharrean, talde zabalago eta baliabide gehiago jarriko balira.

Euskeraren erro horiek oso zehatzak eta esanahi bakarrekoak dira. Aldiz, Sanskrito edo Zelta moduko ama hizkuntzen erroek "eskas definituak" eta hainbat interpretazio izan ditzakete.



Jabier Goitiaren liburua

Prozesu historikora itzuliz, modu batean ulergarria da seigarren mendeko apezpiku batek edota XVI. mendeko apaiz jesuita batek ezin jakitea, adibidez, Espāñan zehar dozena luze bat "Zaragoza" lekuizenak dagozela edo hainbat eskualdetan "Madrid", "Lacoruña", "Larrijoja", "Iglesia", "Gallego", "Miguel"... eta milakada gehiago, Espāñako Geografiako Institutu Nazionalaren datu basean bilaketa azkar bat egin ondoren. Lekuizen horiek ahoz-ahoz transmititu izan dira gizalditik gizaldira Floridablankako kondeak orain 200 urte batzen hasi zuen arte.

Milaka eta milaka lekuizen hauek benetako "fosilak" dira, arkeologia pieza ikaragarriak, erromatar geografo eta kronistek idatzitako ehunka gutxi batzuetara ez mugatzera gonbidatzen gaituztenak.

Horregatik orain arte egon diren aurreitziak, erabili diren datu gutxirekin eta aurreko eta behin eta berriz kopiatutako bibliografiak mugatzen zuenarekin, ikerleek (apartekoak izan ez direnek) aurreko guztia baieztatzen eta kasuren baten zerbait gehitzera mugatu izana ulergarria da.

Bide horretatik heldu gara gaurko egoera txirora, non jakinduria ofizialak iturri nagusiak Latinaren gainean jarri dituen, nahiz eta seguruenik, Gaztelera milaka urte zaharragoa izan daitekeen. Eta horretarako noski, Latinetik Gaztelera pasatzeko eboluzio legeak asmatu behar izan dituzte fluxua alderantzizkoa izan daitekeenean.

Beraz gorritu barik esan liteke Iberiar hizkuntzarekin orain arte egindakoa, ia hutsaren hurrengoa izan dela.

e) Toponimia dezifratzeko oinarrizko legeak

Iberiar penintsulako toponimia, bere natura eta fisiografiarekin gertatzen den moduan, oso anitza da, inguruko herrialdeetako baino aberatsago eta konplexuagoa, eta, noski, Europako iparraldeko herrialdeetan bere askoz gehiago, hantxe gizakia azken 8.000-10.000 urtetan baino ez delako izan.

Toponimia honek bere legeak ditu eta horietako batzuk aurkitu eta testatu izan dira dagoeneko. Hona hemen azpimarragarrienak:

- Lekuizen zahar gehienek haien ingurumeneko ezaugarri garrantzitsu zehatzenak adierazten dituzte, hau da, erliebea, aurkitzen diren material geo-mineralogikoak, ura nola agertzen den eta batzuetan landaretza eta igarotzeko edo zeharkatzeko baldintzak.
- Hidronimia oso ugaria da, baina gehiena ez da "ur" lexeman oinarritzen, beraren aurreko "ü" eta "i" morfemetan baizik. Eta ohiko ibaietan baino, urarekin zerikusia duten bestelako agerpen geografikoetan dugu: iturriak, ponpak, ozinak, jaiotzak, zirristak, ur begi eta ur negarrak, urbiak, ubideak, hezeguneak, meandroak, hondartzak, ur orriak, erraldoi lapikoak, ur jauziak, sifoiak, padurak, zohikaztegiak, lakuak eta lakutxoak, urmaelak, lakuak, errekek, estuarioak, urtegiak, glaziarrak ...
- Pasabide edo elurzuloekin loturiko lekuizenen bat baldin badago ere, ia ez dago eguraldiarekin edota aldi baterako gertakeriekin zerikusirik duten lekuizenik.
- Herritar askok uste duenearen kontra, ia ez dago Jainkoarekin edo erlijioarekin loturiko lekuizenik.
- Hirien inguruetan izan ezik, (lorategi, ortu edo karmenak aparte) lekuak izendatzeko ez dago erreferentzia onomastiko edo antroponimorik (herritar, militar edo erlijio izenik).
- Balizko santu izenekin (San Migel...) ere antzeko gauza gertazen da: Ba dagoz orain gutxi jarritako santu izen batzuk (erraz igarri daitezkeenak) baina ustezko santuen lekuizen gehienak fonetikoki antzeko izenak badira ere, beraien jatorrizko esanahia oso desberdina da. Erdi Aro Goiztiarrean eta lehenago ere makilatu izan dira santuen izenetara hurbiltzeko.
- Izen asko aldatuta, metastizatuta eta alterazio txikiz beterik dagoz eta garbiketa prozesu bat jarri behar zaie; beraz gaur egun jatorriz berdinak diren izenak, Erdera, Galiziera edo Katalan itxuraz topatu daitezke, baina proposamen etimologiko erabat absurdu eta desberdinekin.
- Askotan, sustraiak ez ezagutzeak jatorrizko izenak desitxuratzen ditu oraingo hizkuntzetara egokitzeko: Gazteleraz hasierako "La" bereiztea nahiz eta artikulua ez izan (Larraina -> La Reina, Lamantza/Lamancha -> La Mancha), Galizieraz ere hasierako "La .." "A ..." bihurtzen nahiz eta artikulua ez izan, Euskeraz "V", "B" bihurtu aberastasun fonetikoak galtzen edo "ano" amaierak "ao" bihurtzen, Katalaneraz "c" osteko "h" kentzen eta "ach" bukaerak ondoren "ac" bihurtzen...
- Toponimo familia osoak agertzen dira ez bakarrik penintsulako lurraldeetan, baita ipar Afrikan, Europako lautadan, Makaronesia guztian, nahiz Siberian ere.

f) Euskeraren gaitasuna: briga atzizkia

Aitzineuskeraren bitartez egin ahal den analisia ez da arlo fisikora mugatzen; Euskeraren erroak erabiliz ezarritako paradigma asko aldatu daitezke, adibidez, "... briga" atzizkiari buruz dagoen proposamena, Zelta dela uste da baina hamaikatsu "briga" eta "brika" atzizkiak

amaitzen diren lekuizenak han eta hemen topatzean, horietako guztiak leku altuetan daudela egiaztatzean, eta horietako askotan defentsa moduko eraikuntzak daudela ikustean, mito hori desegiten da.

Euskeratik egin daitekeen azalpena logikoa bezain sinplea da: "iga" erroak altuera eta "bir" erroak bikoizketa adieraziko lukete, hau da, *altuera edo horma bikoitza*. Horrela, Zelten Briga ospetsua, "bir iga" ren batuketa baino ez litzateke izango, "Briga" emateko. Horrela briga *eraikuntza bikoitz* bat izango zen, balizko erasotzaile edo animalia basatiak urruntzeko.

g) Benetako lekuizenak desitxuratzen dituzten ohiko aldaketak

Zer esatera dator hau guztia? ba toponimia Iberiarra ez dela erromatarrek jaso zituzten eta esateko zailak diren ehun bat izen horiek (Castulo-Kastillo, Saetavi-Xátib, Oria-Oria, Mentesa-Mendexa moduko gutxi batzuk kenduta oraingo izenekin inolako antzik ez dutenak), ez. Toponimia iberiarra da penintsulan etengabe errepikatzen diren eta ia aldeketarik gabe mantendu diren izenak dira: gailurrak, ibaiak, lautadak, aldapak.... Nahiz eta horietako izen asko Gaztelaren itxura izan, hala nola, *Ballesta, Braga, Casilla, Fraile, Gallego, Gallina, Gándara, Gurugú, Iglesia, Jardín, La Guardia, La Herrera, La Rabiosa, La Mancha, Lampara, La Rinconada, Obispo, Oreja, Oso, Miguel Palacios, Paul, Piojo, Valencia ...*

Ballesta ez da gudarako arma, ibai baten bihurtzea baizik. Braga ere jantzi bat, Casilla ez da etxola, Fraile ez da fraidea, Gallego lekuizenak ez dira Galiziatik etorritakoak, edo Gallina hegazti bat. Ez jaun-andreak! Alofonien kapritxo besterik ez dira, egun baten Aintzieskeraren bidez argitzeko zain dauden lekuizenak baino.

Izenen aniztasuna izugarria eta deigarria da. Adibidez, "Lar...", "La R..." edo "A R..." hasten diren lekuizenak 600etik gora daude, Gaztelaraz edo Galiziaraz hasierako "La" hori artikulutzat hartu izan direlako. Baina izatez, horiek guztiak "larre edo belardi" esanahia daukate eta Extremaduran zein Frantziako Alpeetan aurkitu daitezke.

Horrez gain, pilo ba dira ere "banandutako" edo "aldatutako" izenak, esanahi erromatar, kristau edo gotikora hurbiltzeko: amaibakoak dira San, Santo, Santa, Sande, Santu... desitxuratu direnak.

Beharbada, larriagoa da "ate" eta "ete" amaierekin egin dutena. Izan ere, atzizki hauei gaztelaraz gutxiezen zentzua eman zaie, toponimian "mendatea" adierazten dutela zalantzarik ez dagoenean. Edo "eno" eta "ano" atzizkiak, amaiera antroponimikoak direla esan izan digute baina tamaina adierazleak izan daitezke.

h) Ondorioak

Ondorio modura honakoa esan beharra dago:

- Iberiar toponimia aztertzeko orain arte erabili izan diren ehun bat izen historikok ez dute benetako toponimia islatzen eta ez dute jatorrizko grafia jaso. Beraz, ez dute ikerketarako balio.
- Azken mendeotako izenak kenduta, jatorrizko lekuizenak Institutu Geografiko Nazionalaren bidez eskuratu daitezkeen ia milioi eta erdiko toponimoak dira.

- Nahiz eta ikerle askok Euskera eta Iberiera hizkuntza nebarrebatzat hartu, edo haien artean harremanik ez dutela esan, Euskerak, nahiz eta gaur egun oraindik erro asko argitu gabe eduki, Toponimiara eta Zientzia eta Arte gehienetara hurbiltzeko gaitasuna dauka eta azken 3.000 urteotan ilunpean egon diren alderdi asko argitu ahal dizkigu.

i) Eranskinak (webgunean jarriko dira)

I-Toponimoa: Iberia

II – Topónimoa: España

III – Topónimoa: gallego



I. Taula - Tabla I

Españan kokatutako "Iberia" familiko lekuizenak, ordu eremua eta UTM koordenatuak adieraziz	Topónimos de la familia "Iberia" localizados en España con indicación del huso horario y coordenadas U.T.M.	Place Names of "Iberia" family located in Spain indicating the time zone and UTM coordinates
Aginagasiberri	30 593103 4798599	
Atiber	30 560458 4763495	
Balcón de la Siberia	30 303374 4320598	
Barranc de Siberoli	31 274438 4540567	
Barranco de Siberio	28 431433 3094815	
Bennoc d'en Sibert	31 488305 4366732	
Casa de Frutiberia	29 696066 4113519	
Casa de la Siberia	30 626071 4289424	
Corta de Tiberio	29 688551 4163212	
Estany de Besiberri	31 318670 4719243	
Estanyets de l'Obaga de Besiberri	31 319369 4718404	
Everluz	29 679632 4117082	
Iberas	30 585564 4753296	
Iberbur Ibaia	30 514680 4798178	
Iberia	30 499490 4795518	
Iberias	29 582649 4736334	
Ibernalo	30 555005 4723865	
Ibero	30 636652 4716309	
Ibero	30 593026 4779317	
Ibero	30 600166 4739569	
Iberondo	30 568524 4757728	
Iberondo Barrena	30 565613 4760187	
Iberos	30 393590 4069075	
Iberra	30 533027 4780653	
Iberreko Gana	30 516283 4806241	
Iberri	30 605219 4762254	
Ibersol	31 389403 4562186	

Iberzu Iturria	30	537685	4777966
Ibi	30	711132	4278232
Ibia	30	535944	4723563
Ibia	29	641986	4814849
Ibias	29	673271	4767199
Ibidea	30	642366	4755907
Ibieca	30	730701	4671462
Ibieta	30	533362	4774080
Ibilcieta	30	654855	4744670
Ibillaurre	30	517773	4809247
Ibiluzea	30	640359	4755886
Ibin Erreka	30	580256	4778531
Ibina de Abajo	30	602214	4784825
Ibina de Arriba	30	601562	4784951
Ibinaga	30	529648	4804666
Ibinako Bidea	30	602497	4784789
Ibinako Lapatza	30	530424	4804690
Ibingo Langa	30	581156	4779253
Ibingo Txuloa	30	580405	4778912
Ibintza	30	600741	4780139
Ibio	30	407131	4793654
Ibio	30	404552	4796191
Ibion	30	644161	4759145
Ibiri	30	549082	4794056
Ibiricu	30	579969	4733191
Ibiricu	30	542479	4741833
Ibiricu	30	619417	4742696
Ibiricu de Yerri/Ibiriku Deierrri	30	580048	4733239
Ibirigain	30	562004	4749355
Ibiritxo	30	549018	4793988
Ibirizki	30	588348	4729653
Ibirque	30	723587	4690976
Ibirri	30	603027	4778308
Ibirutxo	30	548355	4794647
Ibisagasti	30	570571	4775448
Ibisate	30	547993	4735206
Ibisate	30	547993	4735206

Ibituri Erreka	30	575101	4785115
Ibiur	30	586339	4771209
Ibiur Erreka	30	571199	4770458
Ibixa	30	554694	4793204
Ibiza	30	442753	4474537
Ibiza	31	363636	4316838
Ibizabal	30	506998	4772266
Ibizar	30	554812	4791476
Iperberro	30	635473	4753544
Ipergorta	30	515359	4766593
Ipergorta Erreka	30	513276	4769280
Ipermalda	30	622764	4760926
Ipernuko Erreka	30	516754	4805734
Iperraga	30	503524	4767289
Iperre Araunabeitia	30	536598	4776136
Isastiberde	30	591213	4767896
La Cruz de Tiberio	30	552085	4707697
La Siberia	30	300036	4324323
La Siberia	28	443425	3097038
Liber (San Remixio)	29	655676	4747442
Libergune	30	508732	4802587
Liberry	30	628595	4736237
Libertad	30	437755	4222462
Libertó Vell	31	605911	4418202
Montiberri	31	316257	4694972
Presa de Siberio	28	429274	3095159
Sagastiberri	30	572626	4765633
Siberio	30	520751	4776958
Vall de Besiberri	31	318643	4719379

II. Taula - Tabla II

Españan kokatutako "España" familiko lekuizenak, ordu eremua eta UTM koordenatuak adieraziz	Topónimos de la familia "España" localizados en España con indicación del huso horario y coordenadas U.T.M.	Place Names of "España" family located in Spain indicating the time zone and UTM coordinates
---	---	--

A España 504694 4789431 29

Alto de Espuña 632040 4204878 30

Alto de los Españares 388392 4225935 30

Apain 549644 4793307 30

Barranco de España 722437 4329757 30

Barranco de la Espuña 254636 4710350 31

Barranco del Paine 663914 4243654 30

Barranco Espuña 259600 4695428 31

Camino de España 552596 4705244 30

Camino de Puerto Aseado Españares 385552 4216319 30

Camino de Valdespaña 654846 4591537 30

Cañada de las Españas 275535 4409926 30

Cañada España 405122 4169355 30

Cerro Espuña 625620 4192119 30

Cerro Valdespaña 660068 4555466 30

Charco de España 723913 4403618 29

Collado de Espuña 632341 4205144 30

Cordel de las Rosas de España 286322 4023770 30

Cuarto de España 540172 4319242 30

El Pain 362716 4599807 30

Ensenada de España 295726 4824768 30

Escabañas 253409 4466517 30

Escala de España 301661 4418887 31

Euskeraren Jatorriaren 9. Biltzarra. Gernika-Lumo. 2014.05.10

España 412500 4497000 30
España 368473 4069637 30
Españaga 597034 4761894 30
Española 560888 4764380 30
Esparañal 548390 4696817 29
Espuña 637592 4190129 30
Ezpainpea 675452 4746461 30
Finca España 372820 3150320 28
Fuente de España 726905 4179797 29
Fuente Espuña 259490 4695319 31
Hoya de España 666260 4186259 30
Hoya de España 389068 4071120 30
Hoya España 629046 4173770 30
Huerta España 699077 4330076 30
Ispaster 537033 4801309 30
Laja de España 262387 4016094 30
Los Españales 268030 4436848 30
Los Españares 386530 4227244 30
Majadal de España 274085 4013321 30
Malpica de España 662015 4294284 29
Monte de España 566369 4777424 29
Montysol de Espuña 625970 4184681 30
Nueva España 302800 4248805 30
Parque de Despeñaperros 449000 4253289 30
Pieza de España 592825 4687308 30
Pista Forestal de la Huerta de Espuña 625228 4188988 30
Playa España 295845 4824748 30
Prados de España 545516 4769618 29

Puntal de España 557377 4236395 30
Puntal de España o Aritzmakur 598612 4802105 30
Río España 294480 4821475 30
Río Espuña 631635 4191924 30
Rosas de España 287419 4018565 30
Sierra de Espuña 621418 4192207 30
Solana de la Majada de España 446006 4134844 30
Torre España 356366 4647409 30
Trespeña 701698 4781061 29
Trespeña 367235 4776302 30
Trespeñas 382051 4792731 30
Umbría de la Sierra de Espuña 626665 4197826 30
Valdespaña 719061 4659653 30
Valdespaña 393016 4633778 30
Valdespaña 654610 4591756 30
Valdespaña 540921 4563890 30
Valdespaña 661636 4555165 30
Zepain 587498 4765209 30

III. Taula - Tabla III

Españan kokatutako "Gallego" familiko lekuizenak, ordu eremua eta UTM koordinatuak adieraziz, guztira: 1.269 lekuizen

Ba liteke izen batzuk errepikatuta egotea mapetako etiketatik atera direlako eta mapen muturretan daudenean leku-izenean, berain etiketak errepikatuak izan daitezke.

Topónimos de la familia "Gallego" localizados en España con indicación del huso horario y coordenadas U.T.M. Total 1.269 lugares

Aunque se ha hecho una selección previa, puede haber topónimos repetidos puesto que la extracción se hace desde las "etiquetas" de los nombres y algunos suelen repetirse cuando están en los extremos de las hojas del mapa.

Place Names of "Gallego" family located in Spain indicating the time zone and UTM coordinates: 1,269 places

While there has been a previous selection, names may be repeated as the extraction is done from the "tags" and some names are repeated when they are at the ends of the map sheets.

A Fongallega	29	677120	4810494
A Gallega	29	583358	4769533
A Gallega	29	615316	4821228
A Gallega	29	583391	4769329
A Gallega	29	615352	4821005
Agra de Galegos	29	618673	4764448
Agro de Galegos	29	580166	4744071
Aldeagallega	30	270710	4528791
Alto de Galleguilla	30	493621	4522987
Alto de las Gallegas	30	347768	4545297
Alto de los Gallegos	30	366995	4559151
Alto de los Gallegos	30	367006	4558764
Alto de Valgallegos	30	449025	4521736
Alto de Valgallegos	30	449187	4521756
Alto Gallego	30	509603	4459563
Alto Gállego	30	717691	4710554
Alto Gallegos	30	294360	4509228
Altos de Gallegos	30	446025	4441886
Altos de Gallegos	30	446211	4441680
Antón Gallego	30	408243	4463403

Arroyo de Aldeagallega	30	272099	4530188
Arroyo de Antón Gallego	30	408852	4464144
Arroyo de Baldío Gallego	29	749170	4242437
Arroyo de Baldío Gallego	29	749046	4242240
Arroyo de Casa Gallego	30	478317	4230903
Arroyo de Casa Gallego	30	478203	4230711
Arroyo de Gallegos	30	270769	4790818
Arroyo de Gallegos	30	270665	4790621
Arroyo de Galleguillos	30	285504	4200062
Arroyo de Galleguillos	30	285870	4198964
Arroyo de Galleguillos	30	287055	4197210
Arroyo de la Gallega	30	274048	4831370
Arroyo de la Gallega	30	406037	4444247
Arroyo de la Gallega	30	273940	4831182
Arroyo de la Hoya del Gallego	30	329071	4467553
Arroyo de la Hoya del Gallego	30	328967	4467362
Arroyo de la Mata de los Gallegos	29	706588	4546849
Arroyo de la Mata de los Gallegos	29	706463	4546624
Arroyo de las Gallegas	30	267897	4242915
Arroyo de las Gallegas	30	267789	4242715
Arroyo de los Gallegos	30	242398	4306651
Arroyo de los Gallegos	30	286071	4007477
Arroyo de los Gallegos	30	243473	4277337
Arroyo de los Gallegos	30	242290	4306443
Arroyo de los Gallegos	30	291025	4667291
Arroyo de los Gallegos o del Escobero	30	286183	4007678
Arroyo de los Galleguines	30	261433	4209904
Arroyo de los Galleguines	30	260158	4207479
Arroyo de Marigallega	29	751670	4503594
Arroyo de Marigallega	29	751547	4503370
Arroyo de Marigallegas	29	691867	4486866
Arroyo de Marigallegas	29	692595	4485282
Arroyo de Navagallega	30	264809	4511465
Arroyo de Navagallega	30	264700	4511263
Arroyo de Pozo Gallego	30	247685	4007645
Arroyo de Pozo Gallego	30	247569	4007442
Arroyo de Prado Gallego	30	410514	4444181

Arroyo de Prado Gallego	30	315933	4200462
Arroyo de Prado Gallego	30	410412	4443990
Arroyo de Valdegalleja	30	356982	4478383
Arroyo de Valdegalleja	30	356083	4477388
Arroyo de Valdegallejo	29	703220	4376002
Arroyo de Valdegallejo	29	703097	4375803
Arroyo de Valdegallegos	30	329322	4720964
Arroyo de Valdegallegos	30	283919	4398577
Arroyo de Valdegallegos	29	703823	4434007
Arroyo de Valdegallegos	30	329213	4720774
Arroyo de Valdelacruz/Rivera de Gallegos	29	694505	4495572
Arroyo de Valdelagallega	30	515632	4538194
Arroyo de Valdelagallega	30	515524	4537988
Arroyo de Valgallego	29	692328	4351041
Arroyo de Valgallego	29	692203	4350830
Arroyo del Coto de los Gallegos	30	244910	4229976
Arroyo del Coto de los Gallegos	30	245319	4229220
Arroyo del Gallego	30	299124	4616500
Arroyo del Gallego	30	394438	4351758
Arroyo del Gallego	30	250160	4007544
Arroyo del Gallego	30	493048	4113367
Arroyo del Gallego	30	468008	4129269
Arroyo del Gallego	30	394333	4351549
Arroyo del Gallego	29	698927	4370678
Arroyo del Gallego	30	249089	4390187
Arroyo del Gallego	30	523019	4434038
Arroyo del Gallego	29	672395	4451626
Arroyo del Gallego	30	639540	4538049
Arroyo del Gallego	30	299016	4616298
Arroyo del Portillo de los Gallegos	30	493493	4466742
Arroyo del Portillo de los Gallegos	30	493386	4466531
Arroyo Gallego	30	304092	4475607
Arroyo Gallego	29	717454	4167256
Arroyo Gallego	29	717333	4167048
Arroyo Gallego	29	685329	4261712
Arroyo Gallego	29	688159	4262334
Arroyo Gallego	30	268156	4416635

Arroyo Gallego	30	266897	4417182
Arroyo Gallego	30	303984	4475397
Arroyo Galleguillos	30	341692	4507824
Arroyo Galleguillos	30	341692	4507824
Arroyo Galleguillos	30	341587	4507622
As Galegas	29	605541	4656780
Azarbe Gallego	30	698621	4220280
Azarbe Gallego	30	698517	4220074
Baldío Gallego	29	749403	4243029
Baldío Gallego	29	749524	4242831
Barco de Pedro Gallego	30	377814	4589762
Barco de Pedro Gallego	30	378095	4589553
Barranco de Gallegos	30	655500	4695243
Barranco de la Casilla del Gallego	30	481972	4545118
Barranco de la Casilla del Gallego	30	481864	4544918
Barranco de la Gallega	30	442512	4421767
Barranco de la Gallega	29	645066	4125933
Barranco de la Gallega	30	442403	4421573
Barranco de la Hoya del Gállego	30	612359	4587575
Barranco de la Venta de los Gallegos	30	422818	4471832
Barranco de la Venta de los Gallegos	30	422708	4471634
Barranco de Valdegallegos	29	695761	4201800
Barranco del Gallego	30	374156	4421167
Barranco del Gallego	30	522343	4508038
Barranco del Gallego	30	490203	4108867
Barranco del Gallego	30	486609	4149634
Barranco del Gallego	29	701728	4153933
Barranco del Gallego	30	627115	4192097
